

## **TXORIEN JAUZI TTIKIZ**

Leire Arenas Belamendia, 16 urte

*Azpeitia*

*Zabor gozamen bat zure izate usteldu  
Eta nire hezur-azal zimelentzat.*

Besterik ez nuke nahi altzairuzko negu hotz hone-  
tarako  
berotu gaitzan barnetik,  
desio lohiaren pozoinak  
... irakiten,  
urtzen...

ez nuke aterperik behar, ez eta ur edo jatekorik  
baratzeko har zoriontsua lez bizi ninteke  
zure besoen artean, babes-arnasetan;

... maite nazazu baina arren,  
estutu soka ene lepoan,  
estutu soka ene lepoan.

Ai, erotzen naiz.  
Tarteka.  
Txorien jauzi ttikiz

Arrimatzen naiz  
Zugana.  
Tarteka.  
Baina luma guztiak  
Galdurik bidean,  
Biluzturik iritsi ohi naiz  
Zugana.

\*

\*

\*

\*

Sentitzen  
Sentitzen naiz  
Sentitzen naiz bat-batean  
kateak kendu dizkioten Alice bat bezala  
eta entzun nahi nuke munduaren makineria  
eta zakurren borroketako zaunkak  
eta aspaldiko asteroideen talkak,  
nahiz elur zuriaren hegaldia, emeki...

Gure itzalak gure arimak baino  
urrunago hedatzen diren iluntze gorietan——  
——laztandu nahi zintuzket  
utziko nizuke zure presentziaz ni iraintzen  
udazken honen magia eskuetan duzularik  
bertan murgildu eta tristezia zikin honetaz blai  
egin nazazun.

Ai, erotzen naiz.  
Tarteka.

Bada, zugatik da.  
Izokin indargea bainaiz erreka kutsatuan gora  
eta, bitarte horretan:

LUST

...edo zure gorputz biluziko isurkari lizuna  
udazken honetako orbel sikatuaren gainera erortzen.

Nire tripak diren zuri beltzeko espiralean behera  
galtzen naiz.

Eta, nork jakin nola,  
arnasik gabe esnatu,  
zure izatea den  
sagar mutxikin eta  
esne potezko  
zabortegi kirastunean.  
Zaborra nire inguruan  
eta neu zaborra besarkatzen.

*Zabor gozamen bat zure izate usteldu  
Eta nire hezur-azal zimelentzat.*